

Hamazazpi

2019ko udaberria



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



- _ ZUK SAREAN SARTU DA ZIGOITIA
- _ BENGOLARRA BERRIA, PARKERA IREKITA
- _ 'EMAKUMEEN' LAN KARGAK ETA KONTZILIAZIO FALTA
- _ 3 IBILBIDE ETNOGRAFIKO-KULTURALEN SEINALEZTAPENA
- _ ELKARRIZKETA: NURIA LOPEZ DE LETONA, GUIKURI MODA
- _ ARGITERIA PUBLIKO BERRIA: % 45ETIK GORAKO AURREZKIAK



04



06



07



09



10



12



14

Hemen eta orain

- 03 Maiatzeko udal hauteskundeak emaitzak
- 04 3 ibilbide etnografiko-kultural seinalatzatuko dira
- 06 ZUK sarean sartu da Zigoitia
- 07 'Emakumeen' lan kargak eta kontziliazio falta
- 08 % 45tik gorako aurrezkiak, LED argi berrieekin
- 09 Bengolarra berria, parkera irekita
- 10 Nuria Lopez de Letona, Guikuri Moda

Kolaborazioak

- 12 Eguneko Arretarako Landa Zentroko berriak
- 13 Zigoitiko kondairak. **Isidro Saez de Urturiren** eskutik
- 14 Liburutegitik, maitasunez. **Javier Arbulurekin**

Staff

HAMAZAZPI

Zigoitiko Udaleko aldezakaria · 2019ko udaberria

Azala: Aritz Bayer.

Editatzailea: Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_ 945 46 40 41 · www.zigoitia.eus · zigoitia@zigoitia.eus

Koordinazioa:

Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Erredakzioa:

Rosa Gerenabarrena · Rosa Ortiz de Mendivil

Diseinua eta maketazioa: www.hirudesign.com

Imprimaketa: www.graficasirudi.es

Ale kopurua: 1.050 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak koptatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria



2019ko Eguzki Jaia iragartzeko kartel bila

Udarekin batera, badator Zigoitiko udalerriko festa. Eguzki Jaiaz ari gara, aurten uztailearen 26, 27 eta 28an izango dena, hain zuzen ere. Eta martxan dago jada jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Aurten, lehenengo aldiz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duen irudi/testuren bat sartzea balioetsiko da. Interesa baduzu, ekainaren 25era arte irekita dago proposamenak aurkezteko epea. Informazio gehiago aurkituko duzu udal webgunean: www.zigoitia.eus

Udal hauteskundeak_ 2019ko maiatzak 26

		EH Bildu	EAJ-PNV	PSOE	PP	SARRAGOA	Zuriak	Baliogabeak	Parte-hartzea	Abstentzioa
2019	Bozak	396	321	88	58	-	36	23	922	487
		4	4	1	0	-				
	%	44,05	35,71	9,79	6,45	-	4,00		65,44	34,56
2015	Bozak	320	175	27	64	278	18	19	901	505
		4	2	0	0	3				
	%	36,28	19,84	3,06	7,26	31,52	2,04		64,08	35,92

2019ko Zergadunen Egutegia

KALE-ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2019-05-01 _ 2019-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Lehenengo epea (kuotaren %50a) – Ekainaren hasieran
Bigarren epea (kuotaren %50a) – Urriaren hasieran

LANDA HIGIEZINEN ZERGA

Borondatezko epea:
2019-05-01 _ 2019-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Ekainaren hasieran

ABELTZAINZA-KANONA

Borondatezko epea:
2019-06-01 _ 2019-07-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Uztailaren hasieran

ZABOR-BILKETAREN TASA

Borondatezko epea:
2019-05-01 _ 2019-06-30

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Ekainaren hasieran

LANDAK

Borondatezko epea:
2019-06-01 _ 2019-07-31

Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Uztailaren hasieran

3 ibilbide etnografiko-kultural seinalatzatuko dira

Javier Castro adituaren eta Abadelaueta Elkartaren ekimena dugu hau, udalerriko administrazio batzarren eta Zigoitiko Udalaren laguntza duena



Javier Castro (beheko ilaran, lehenengoa eskuinetik hasita) **errotarrietarako** bisita batean.

Hileko hirugarren larunbatetan antolatzen dituzten ibilbideak abiapuntua hartuta, Abadelaueta Elkarte, maiatzean, 3 ibilbide etnografiko-kulturalen seinalatzapena egiten hasi zen. Ekimen honek ahalbidetuko du informazio beteagoa eskaintzea ibilbideak egiteko interesa duten pertsona guztiei. Seinalatzeko proiektua, udalerriko administrazio batzarren eta Zigoitiko Udalaren laguntzarekin aurrera atera dena, ibilbide bakoitzean panel informatiboak jartzean datza. Panelek QR kode bat daukate; honek, mugikorraren bidez, udal webgunean eskaintako informazioa eskuratzeko aukera ematen du. Gainera, ibilbide bakoitzaren hasieran beste panel esplikatibo bat jarri da.

Errotarriak

Seinalatzatu den lehenengo ibilbidea errotarriena izan da (Kanteratxiker, Oketa eta Askor). Hauek aztertzeke Javier Castrok, Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak, Abadelauetaren laguntza izan du. Ibilbide honetan errotaren gurpilak egiteko errotarriak

ikusitako ahal dira: kalitate oneko hareharriak dira, 45 zentimetrotatik 160 zentimetrotarako diametrokoak. Aranzadiren arabera, Zigoitian errotarriak egiteko 48 ustialeku daude, beraz, munduko errotarri harrobi handienetarikoa bat dago gure udalerrian. Abadelaueta Elkarte Etnografikoak irteera bat programatu du ibilbide hau egiteko, urte bukaeran, abenduaren 21ean. Bertan azalduko dute nola funtzionatzen zuten errotek, harriz egindako errotarriekin.

Goikobidea

Bigarren zirkuitoa *Goikobidea* deitzen da. Izena Javier Goikoetxea, 'Goiko'rengandik dator, Abadelauetako sortzaileetako bat. Era horretan, omenaldia egin nahi izan diote. Ibilbide zirkularra da, Manurgan hasten eta bukatzen dena. Taldeak azaltzen duen moduan, ibilbide erraza da, gainerako biak bezalakoa. Urtarrilaren 19an egin zen bisitan egiaztatu zen moduan, Amezua ibaiaren mendebaldetik doa, ipar-ekialderantz, 'Murabe' izena duen zonaldera arte. Puntu horretan hegoalderantz jarraitzen du, Murua herrira ailegatzeko. Bertan



Letona-Zaitegiko Gaztelua eta San Bitoren Ermita.

labeek, elurtegiek, eta errotek eta Amezuko zubiak osatzen duten multzoa ikus daitezke.

Arrato Mendilerroa

Abadelauetak seinalatzatuko duen hirugarren ibilbidea Arrato Mendilerroan dago, ikuspegi ederra iparraldetik Gorbeia eta Oketa, eta hegoaldeetik Gasteiz atseginez begiratzeko. Ibilbide entretenigarri hau zirkularra da. Letonako San Andres Elizatik ateratzen eta bueltatzen da, eta ematen du aukera ikusteko Letona-Zaitegiko Gaztelua, San Bitoren

Ermita, Urisoloko Kastroa eta inguruetan dauden haitzulo batzuk eta ikaztegi bat. Izan ere, haritzen eta arteen (trasmotxoak) eremua bisitatzen da, eta baita Letonako harrizko zubia eta iturria ere. Ibilaldi hau programatuta dago azaroaren 16rako.

Informazio gehiago:

Mendi irteerak: hileko hirugarren larunbatetan (9:30etan Bengolarrako parkinean)

E-maila: abadelaueta@gmail.com

Webgunea: www.zigoitia.eus

Elizak, ermitak, iturriak, errotak...

Abadelaueta Elkarte Etnografikoak aspalditik aztertzen du gure ingurua, espezialista ezberdinen laguntzarekin; besteak beste, Aranzadiko arkeologoak, irakasleak eta adituak. Xabier Galarraga kideak azaltzen duen bezala, Abadelaueta duela 12 urte hasi zen lanean Zigoitiko sustapen etnografiko-kulturala egiteko. "Abandonatuta egon den ondare garrantzitsua duen lurralde bat daukagu. Zenbatu ditugu 17 eliza, 20 ermita edo era horretako arrasto baino gehiago, 50 iturri baino gehiago, bide zaharrak, errotak, txabolak...". Administrazio batzarren, gure udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren babesari esker, Zigoitian bizitzen ari gara gure ondarearen zati handi baten berreskurapena. Azkenik, Abadelauetak beste bi ibilbide



Arrato Mendilerroko ibilbidean Amezuko Zubitik (Manurga) pasatzen da.

markatuko ditu; Memoria Historikoarekin lotutakoak, hain zuzen ere. Hurrengo hauek dira: 'Fronte frankista' deitutakoa, zeinen bisita otsailaren 16an egin zen, eta 'Fronte errepublikanoa', ekainaren 15ean bisitatuko dena.

ZUK sarean sartu da Zigoitia

Orain arte Zuia, Urkabustaiz eta Kuartangoko udalek osatutako taldera gehitu da, herritarren ongizatea bultzatzeko



Zigoitiko Udalak erabaki dut ZUK sareko (Zuia, Urkabustaiz eta Kuartangoko akronimoa) kide izatea. Helburua da herritarren ongizatea bultzatzea, adin guztietan jardura fisikoko mailak hobetuz eta "sinergiak eta ekintzetan, dirulaguntzetan eta balorazioetan partekatutako lanak" optimizatuz.

Sare-sistema bat da, Eusko Jaurlaritzak Mugiment estrategiaren bidez abiarazita. Tokiko herritarren sarean bitartez, jardura fisikotik abiatuta ongizate eta osasuna sortzeko lan egiten duten gizarte agente ezberdinen arteko lankidetzak du helburu. "Osasun zentroa eta ospitalea ez dira osasun plataforma bakarrik. Udaltzat, eskolak

edo tokiko elkarteek herritarren osasunean eragiteko osasun-sistemak berak baino ahalmen handiagoa izan dezakete", azaldu dute udal arduradunek.

Protagonistak: herritarrak

Udal bakoitzean era koordinatua funtzionatzen duten 3 talde daude: talde sustatzailea, talde zabala eta herritarrena.

Lehenengo alkatetzak eta eskumena duen zinegotziak eramanen dute, Mugiment programako aholkularitza teknikoaren lankidetzan. Talde zabala arlo ezberdinetako agenteek osatzen dute: Kirolekoek, Osasunekoek, Gizarte-Zerbitzuak, Heziketakoek eta Berdintasunekoek. Hala ere, benetako protagonistak herritarrak dira; beraiantzat lan egitenda, populazioaktiboagoa bihurtzealortzeko. Orain arte, programa partekatu da Zigoitiko erizaindegiarekin eta osasun-zerbitzuarekin, udaltzarekin eta Kultura batzordearekin. Hurrengo pausoa izango da, uda pasa ondoren, herritarrei ekimena aurkeztea, beren iritzia kontuan hartu ahal izateko.

Interesatutako pertsonak euren proposamenak helarazi ahal dizkigute hurrengo e-mailaren bidez: kultura@urkabustaiz.eus (Zuriñe, Kultura teknikaria).

Ekainean Mugituz

'Ekainean Mugituz' programaren barruan hiru jardura antolatu ditu Zigoitiko Gizarte eta Kultur Zentroak, adin guztietako taldeei zuzenduta: pilates- mantenu fisikoa (astearte eta ostegunetan), kirola kalean (astelehen eta asteazkenetan), eta kate muskularraren luzaketa-tailerra (ostiraletan).

ZIGOITIKO GIZARTE ETA KULTUR ZENTROA

EKAINEAN MUGITUZ. MUEVETE EN JUNIO

CENTRO SOCIO CULTURAL DE ZIGOITIA

PILATES- MANTENIMIENTO FÍSICO:

Asteartea eta Ostegunak
Martes y Jueves
10:00 a 11:00
16€
13-60 adina/edad

KIROLA KALEAN / DEPORTE EN LA CALLE

Astelehen eta Asteazkenak
Lunes y Miércoles
10:00 a 11:00-
16€
>60 urte/años

TALLER DE ESTIRAMIENTOS DE
CADENAS MUSCULARES

Ostiralak-Viernes
18:00-19:30
12€
13-99 adina/edad

'Emakumeen' lan kargak eta kontziliazio falta

Berdintasun zerbitzuaren kanpaina berri bat, Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunak finantzatuta



Emakumeen % 84ak etxeko lanak egiten dituzte egunero. Gizonen artean, aldiz, portzentajea %42koa da. Eurostatek egindako txosten bateko datuak dira, 2017koak. Bertan azertu zituen, estatu mailan, eremu pertsonala, lanekoa eta bizitzako hainbat ohitura.

Aldeak are handiagoak dira 'zama mentala' kontuan hartzen badugu. Zer da hori? Ba etxeak funtziona dezan egin behar den lan ikusezina: ordutegiak antolatzea, erosketak planifikatzea, familiaren ekonomia kudeatzea eta erabakiak hartzea. Hainbat ikerketaren arabera, emakumeen % 71k zama mentala sufritzen dute. Gizonen kasuan, bakarrik % 12ak.

Ekainean zehar gaia mahai gainera atera zen Zigoitian, Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun zerbitzuaren kanpaina baten bidez, oinarritzko Gizarte-Zerbitzuen lankidetzarekin. Asmoa da 'emakumeen' lan kargak eta kontziliazio faltaren gainean hausnartzea. Horretarako,


1.000 triptiko banatuko dituzte udalerrri guztian. Gainera, Panta Rhei antzerki konpainiaren lankidetzarekin, hitzaldi bat eta tailer bat egin dira "praktikak eta ariketa errazak, aberats eta zukutsuak, eguneroko bizitzan gehitzeko, emakumeok gure gorputzak berriro bizi ditzagun. Ahalduz feminista kolektiboko ekintza bat da", azaldu du Berdintasun arloak.

Bi ekimenak Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Itunak finantzatuta daude. Pasa den urtearen amaieran, administrazio publiko ezberdinen adostasun zabalarekin, onartutako akordioa, hain zuzen ere.

Aldi berean, emakumeen aurkako bortizkeriaren prebentziorako eta emakume eta gizonen arteko Berdintasuna bultzatzeko gure udalerrian egiten ari den lanaren barruan, uztailearen 6ko arratsaldean, Eguzki Jaian, bortizkeria sexistatik gabeko gune informatiboa jarriko da.

LED argi berriek energiaren % 47ko aurrezkoa eragiten dute

Fakturari begira, batz besteko % 45eko jaitsiera ekarri du horrek. Ondategin, adibidez, lanpara zaharrek azken urteetako faktura 5.120 eurokoa izan zen. LED bonbillekin, aldiz, 2.740 € ordaindu dira



Grafikoak: Ondategiko kontsumoen konparaketa.

LANPARA MOTA	URTEKO KONTSUMOA (KWO)	FAKTURAZIOAREN DIRU-KOPURUA
Sodioko baperezko	36.666,00	5.120,30
LED	20.189,00	2.740,64
% AURREZKIA	% 44'94	% 46'48

'Hamazazpi' aldizkariaren aurreko aleetan informatu dugun moduan, Zigoitiko Udalak 11 herritako lanparak berritu ditu: Oikoizta, Berrikano, Eribe, Etxabarri-Ibiña, Etxaugen, Gopegi, Larrinoa, Letona, Manurga, Mendarozketa eta Ondategi. Antzinako sodio baperezko 650 lanpara kendu dira, eta, horien ordez, LED bonbillak, jasangarriagoak eta kontsumo gutxiagoak, jarri dira. Inbertsioa 247.978 eurokoa izan da eta ordaintzeko Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso dugu.

Horrela amaitu da Argiteria Publiko-Instalazioetako Energia-Baliabideen Optimizazio proiektuaren lehenengo fasea. Eta emaitzak aztertzeko aukera izan dugu. Letona, Berrikano, Larrinoa eta Ondategi herriak eredu bezala hartu dira. Bertako lanparen aldaketa abiapuntutzat hartuta, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoa hartu da, aldaketaren ondoko 12 hilabeteetakoekin konparatzeko. Datu guztiak Iberdrolak emititutako eta Zigoitiko Udalak ordaindutako fakturretatik hartu dira. Eta

eztaba daezinak dira. Energia kontsumoaren arloan, lanpara zaharren ordez LED teknologia ezartzeak batz besteko % 47ko aurrezkoa ekarri du (LED bonbilla bakoitzak 60 W inguru kontsumitzen ditu; sodio baperezkoak, aldiz, 150W). Fakturari, diru kopuruari, begira, batz besteko aurrezkoa % 45ekoa da. Gainera, kontuan izan behar da inguruneari dakarkion onura: lanpara berriek igortzen dituzte berotegi-efektuko gas gutxiago (lurraren beroketan gehien eragiten duten gasak, hain zuzen ere).

Zenbakien bidez ikusteko, baliagarria da hurrengo adibidea: lanpara zaharrek, Ondategiko azken urteko fakturan udalak ordaindu zituen 5.120 €. LED argiteriara aldatzerakoan, 2.740 € ordaindu ditu (urteko faktura, berriro ere), % 46'48 gutxiago. Eta elektrizitateko kontsumoa kontuan hartuta, 36.666 kilowatio/ orduko (kWo) kontsumotik 20.189 kWo-ra jaitsi da, % 44'94 gutxiago. Oraindik ez du exekuzio-datarik, baina proiektuaren bigarren fasean, udalerriko gainerako beste 500 lanpara aldatuko dira.

Bengolarra berria, parkera irekita

Aurreproiektua Aldundiko 2020-21 deialdiko Foru Planaren barruan aurkeztu da, diru-laguntza lortzeko asmoz

Pasa den urtearen hasieran bukatu zen Bengolarra udal eraikinaren birmoldatze-prozesuaren lehenengo fasea. Bertan hartu zuten parte udalerriko hainbat elkartek, herritarrek, administrazio batzarrek, udaleko teknikariek, Bengolarrako esleipendunak eta udal talde guztietako arduradun politikoeak.

Guztien artean gaia aztertu ondoren, etorkizuneko beharrak eta instalazioen erabilera definituta geratu ziren. 2018ko abendutik 2019ko otsailera parte-hartze prozesua jarri zen martxan berriro eta 3 bilera egin dira. Bertan, herritar batek egindako plano eta maketen bitartez proposamen ezberdinak aztertu ziren. Baloratu ondoren, eraikin zahararen berritzearekin batera, zera adostu zen: taberna jatetxerako modulu berri bat eraikitzea eta, ondorengo fase batean, erabilera anitzeko pabiloi bat egitea. Honek balioko luke adineko pertsonen eta umeen arteko topaketa sorrarazteko eta, aldi berean, erantzuna emango lieke kirol, eskola, kultur eta aisialdiko beharrei.


Birmoldaketa ahal den bezain laster hasteko, Alberto Garcia Yela arkitektoa kontratatu da. Herritarrek proposatutako ideiak oinarri hartuta, aurreproiektua egin du. Udalbatzarrean ikuskatu eta onartu ondoren, eta diru-laguntza lortzeko asmoarekin, Aldundiko 2020-21 deialdiko Foru Planaren barruan aurkeztu da. Era berean, azken bileran (ekainaren 10ean), aurreproiektua lan taldeari ere aurkeztu da. Bertan sortu ziren zuzenketak eta ekarpenak jaso dira behin behineko proiektuan kontuan hartu ahal izateko.

Berritutako instalazioak

Bengolarra guneak izango ditu taberna-jatetxerako modulu berri bat, parkera irekita egongo dena, eta igerilekuei ere zerbitzua emango diena. Gaur egungo eraikinean, beheko solairuko komunak eta dutexak berrituko dira, eta irisgarritasuna hobetuko da igogailu batekin. Lehenengo solairuan gimnasia egiteko gela handi bat eta neurri ezberdineko hainbat gune egokituko dira. Bigarren solairuan etxebizitza mantenduko da sukaldea txikituta, igogailua jarri ahal izateko.



Bengolarra berriaren behin-behineko planoak.



Maketa, herritarren taldeak diseinatuta.

“Ez ditut jarraitzen modaren aginduak. Nire jantziekin, gustura sentitu daiteke edonor”

“Ez ditut jarraitzen modaren aginduak. Nire jantziekin, gustura sentitu daiteke edonor”



Duela zortzi urte, Muruako Guikuri baserrian, jantzi-denda bat ireki zuen Nuria Lopez de Letonak. 20 metro karratuko gune batean sortu zuen bere ametsa. Asmoa zen zerbait bultzatzea, landa-etxearekiko bateragarria izango zena, eta balioa eta erakargarritasuna emango ziona. Eta, gainera, gustuko izango zuena. Proiektuak funtzionatu egin zuen, eta bere familiaren laguntzarekin aurrera pausu bat ematea erabaki zuen.

Noiz hasi zenuen kokapen berria bilatzeko abentura?

Uztailean lokal berri bat eraiki genuen Manurgako lursail batean. Toki ezberdin bat da, lorategi eta tximiniarekin, leku irekia eta argitsua, non esperientzia ezberdin eta aberasgarriaz gozaten duten bezeroek. Beheko solairu bat da, 50 metrokoa, egokitua. Bertan, edozein neurritako emakumeek euren tokia aurkituko dute.

Guikuri Modak zer eskaintzen du?

Ez ditut jarraitzen modaren aginduak, beraz nire asmoa da edonor gustura sentiaraztea nire jantziekin. Tendentziek adierazten dutena baino haratago joaten saiatzen naiz, nire bezeroek erakargarriak ikus ditzaketen modelo ezberdinak aukeratzen ditut. Bai

hemengo markekin, bai Frantziako edo Italiako enprekin egiten dut lan. Hilabeteetan behin bidaia bat egiten dut jantziak eta konplementu bereziak erosteko, beti ere Guikuri Modak proposamen berriak eskaini ahal izan ditzan.

Zure inplikazioak denda gainditzen duela esan daiteke?

Hasiera hasieratik, egin dudana guztian, udalerriaz gain zonaldean lan egiten duten gizarte eragile guztiak sartzen saiatu naiz. Denboraldi bakoitzean desfileak antolatzen ditut elizako arkupean, inguru zoragarri batean, herritaren onespenearekin. Beraiek ere elkartzeko dira bertan eta ekitaldi bakoitzean sortzen den giroarekin gozaten dute. Era berean, nire enpresa eta eskualdean dauden beste talde edo enpresa ezberdinen arteko

elkarlana bultzatzen dut, beti ere herriei bizitza handiagoa emateko asmoz. Duela gutxi egindako desfile batean Baias Garagardoarekin kolaboratu dugu, modelo bakoitza garagardomota batekin parekatuz. Horrela, zonaldeko eta lurralde guztiko eragileekin sinergiak sortzea bilatzen dut. Antolatu dugun azken ekitaldia, martxoaren 30ean, udaberri-udako sasoa aurkezteko desfile bat izan da. Guikuriko arropa eta konplementuekin jantzitako 13 emakumek eta Txik txak Gasteiz dendako arroparekin 4 gizonak hartu zuten parte.

Norentzat dago pentsatuta zure negozioa?

Guikurin emakume guztiak sartu ahal daitezela nahi dut; nire ustez, moda ez da estutu behar aldeztu aurretik definitutako patrioietara. Hori dela eta, desfileetan neurri guztietako emakumeak jantzen ditut, gure lurraldean bizi direnak gainera. Ez daukat inolako interesik emakume ‘megaperfektu’ baten irudia emateko, errealitatea ez delako halakoa. Nire bezeroen zati handi bat Gasteizen bizi da, baina hona etortzen dira baita ere Zuia, Izarra, Legutio eta Amurriotik, Arabako herri batzuen artean. Eta beste batzuk Bizkaiatik: Orozko, Arratitiatik...

Oso aktibo ikusten zaitugu sare sozialetan.

Bai. Facebooken gaude eta hasi berri gara on-line ere saltzen, webgune baten bitartez. Nire artikuluentzako erakusleio berri bat da, poltsiko ezberdinetara zuzendutako prezioekin. Zentzu horretan, denda-kontzeptu ezberdin bat daukadala esan dezaket. Hemen bezeroa erosketaren zentroa eta protagonista bihurtzen da. Eskariaren arabera denda da hau. Esate baterako, asteburu batean lagun-talde batek etorri nahi badu, deitzen didate eta denda irekitzen diet. Eta nahiago badute, bakarrik uzten ditut. Mota guztietako jendea dagoela ulertzen dut. Batzuei gustatzen zaie beraiekin egotea, laguntzeko, baina beste batzuei ez.

Ekimen honetan babestuta sentitzen zara?

Laguntza-sare garrantzitsua daukat nik, besteak beste nire familia eta lagunekin. Azpimarratu nahi dut amaren babesa. Jostuna da bera, eta moldaketekin laguntzen dit.



LANDA ZAPOREA. Zigoitiko tokiak erabiltzen ditu Nuriak bere jantziak erakusteko.

Ordutegia

Jantziez gain, denda oinetakoak eta beste konplementu batzuk saltzen dira. Ordutegia hurrengo hau da: asteazkenetan, 18etatik 20etara; ostiral eta larunbatetan, 18etatik 21etara. Eta norbaitek beste aukera bat nahi badu, bidali ahal du whatsapp bat 685 73 72 10 telefono zenbakira, geratzeko. Ordutegia astero kontsulta daiteke Facebooken.

+ info

Web: www.guikurimoda.es
E mail: guikuri@euskalnet.net
Facebooka: [@guikuri.moda](https://www.facebook.com/guikuri.moda)
T_685737210


San Prudencio, aspaldian



Gure nagusiek kontatu digute aspaldian ere ohitura handia zegoela Armentiarra hurbiltzeko, festaz gozatzen. Bizikletan joaten ziren Gasteizera eta ailegatzeko ordu t'erdi inguru egiten zuten; hortik oinez, erromerian, basilikaraino igotzen ziren. Inguru guztiak lursailak ziren orduan, eta nekazariak santuari gogotsu eskatzen zioten euria, jendeak soroak zapaldu ez zitzaizkien; egia esan, hainbeste jende pasatu ondoren, sats eginda geratzen ziren. Izan ere, gogoratzen dute urte askotan barra-barra egin zuela euria, eta hortik San Prudentziori jarritako 'Santu pixatia' izena. Eguneko ekitaldi nagusia meza zen, apezpikuak emandakoa. Jende guztia joaten zen eta bukatu ondorensantuanerlikiarimusuaematenzizaion. Armentiarra giroa sekulakoa zen; kuadrillan edo familiarekin joaten ziren helduak, gazteak eta umeak, igandeko arropa jantzita guztiak. Jendetza joaten zen, baina gaur egungoarekin konparatuta, gutxiago; esaten duten moduan, urte haietan Gasteiz 'eskumutur baten' tamainakoa zelako. Herria postu ibiltariz betetzen zen; bertan ogitarteko bat bazkaltzen zuten, eta ardoa edaten zuten, garai horretan garagardoa edateko ohiturarik ez zegoelako. Kontatu digute orain baino dantzaldi gehiago zeudela lehen; zelaietan,

aldi berean, dantzarekin lotutako 5 edo 6 txoko ezberdin zeuden. Eta bolotan jolasteko ohitura ere bazegoela, basilikaren aurrean zegoen bolatokian, hain zuzen ere. Egun hori Arabako gainerako herrietan ere jaieguna zen; patriaren omenez meza ematen zen eta barraskiloak jaten zituzten. "Aldundiak ordaindutako musikariak Gopegira etortzen ziren, erretreta ospetsua jotzera", kontatu digu erabiltzaile batek. Eta beste batzuek azaldu digutenez, San Prudentzio egunean Armentiarra joateaz gain, zonalde honetan ohikoa zen Orora erromerian joatea, hurbilago baitzegoen. Izan ere, batzuek 'vasco-navarro' tren hartzen zuten Urbinara joateko, San Antolin erromeriaz gozatzeko. Ikusten dugun moduan, gure nagusiek ere gozamenerako eta dibertitzeko denbora aurkitzen zuten, landetako, baratzetako eta abereekiko zereginak egin ondoren. Eta atseginez partekatzen dute, euren gaztaroko ohiturak transmitituz. Guk ere gozaten jarraitu nahi dugu. Hori dela eta, Zigoitiko EALZan prestatzen ari gara jada udako txangoak eta bisita kulturalak, beste landa zentroetako lagunekin partekatuz. Informatzen jarraituko dugu. Zin dagizuegu!

Agerkariak (Manurgan eta Muruan entzundakoak)



'Gabon ipuina'-ren irudia. Chales Dickens Museoa, Londres, Ingalaterra.

Adinekoek kontatzen zuten, antzina, honakoa kontatzen zela: behin, gizon zeken bati, hilda zegoen senide bat agertu zitzaioela, 'berea' eskatzeko, hitzartutakoaren arabera. Gizon zekenak baietz esan zion, baina gero ahaztu egin zuen. Hortaz, arima herratua bisitatzen bueltatu zen, baina oraingo honetan beste batzuek lagunduta. Eta zeken hark ahaztu ez zezan, mamuek euren eskuen suaz markatu zuten. Beste etxe batean, gizon batek, hiltzear zegoenean, mezatarako eta karidaderako agindu batzuk utzi zituen. Oinordekoek ez zioten jaramonik egin eta hilabete batzuren ondoren gauza arraroak gertatzen hasi ziren: ateak irekita agertzen ziren, ganbarako leihoak kirrinka egiten hasi ziren, azalpenik gabeko zaratak entzuten ziren... Etxeko umeak negarrez hasi ziren, ikaratuta. Eta igarle bati deitu zioten. Honek nahikoa diru kobratu zien, baina zaratek berdin jarraitu zuten. Gau

batean, aitonak defuntuarekin amets egin zuen; haien erruagatik purgatorioan zegoela esan zion. Eta abisatu: agindutakoa betetzen ez bazuten, berak eta beste arima herratuak eskarmentu bat emango zioten. Aitonak kontatu egin zuen, baina ez zioten kasurik egin. Hortik egun gutxiyera, gauerdian, trumoi ikaragarri batek egin zuen eztanda, eta guztiak izutu zituen. Hurrengo egunean promesa betetzera joan ziren, eta apaizak etxea bedeinkatu behar izan zuen, eta ur bedeinkatuarekin zipriztindu. Zaratak eta gertaera arraroak bertan amaitu ziren.

Bonusa:

Gauetan, mamuak eta sorginak tximiniatik etxeetara sartzen direla esaten da. Hori dela eta, sua estalita eta gurutzearen seinalea utzi behar dira errautsean. Horrela, oinutsik jaisterakoan, oinak erreko dira.



ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarriketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek.'

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen Zigoitiarrak saila sinatzen du, intentzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeko, familia arteko bazkalondoko elkarriketa piztea.



ZAZI, doktore Zigoitian

Testuak eta argazki hautaketa: **Javier Arbulu**



50 lagunek baino gehiago hartu zuten parte aurkezpenean, **liburutegian**.

Luis Rodriguezek, Zigoitiko medikuak, Aurkene Garcia de Albenizek, erizainak, eta Javier Arbuluk, liburuzainak, osasuna sustatzeko programa bat jarri dute martxan... liburu bidez! Eskuragai daukazu jada materialak, irakurtzeko eta ikusteko, zure burua zaintzen duzun bitartean. Eta laster hitzaldi gehiago izango dira; apirilaren 16an, ekimena inauguratzeko egin zena bezalakoa.

Ettxera bueltatu nintzen bakarrik iraileko azterketetarako ikasi behar nuelako. Nire gurasoek herrian 15 egun gehiago aguantatuko zuten. Etxea nuen niretzat. Niretzat etxearen bakardade osoa eta baita nire bakardadea ere. Ez nuen asko ikasten, baina bizirik nengoen. 17 urte nituen. Henry Miller eta Rimbaud nituen, Dostoiievski-ren zorupearen Memoriak. Gauean, batzuetan gauerdian, beste batzuetan egunsentiko ordubietan, Alaskako herri txiki eta 'aberats' batean medikuntzan jardunez bere ikasketa-urteetako dirua itzuli behar zuen New Yorkeko judutar baten telesaila jartzen zuten. Joel Fleischman doktoreak gorroto zuen hori guztia. Bere etorkizun handiko karreratik zerbait

gehiago espero zuen berak. Jaungoikoaren eskutik eta 'hautatuek' negozioak ixten eta 'handicap'-a jorratzen duten urrundutako herri batean bukatzearen aldean, zerbait ezberdina. Baina primerako leku horretan, inoiz ahaztuko ez zituen ikasgai batzuk jasoko zituen Fleischman-ek.

Egia esan, egunean zehar ez nuen ezer egiten, gaueko bizpahiru kapitulen zain egoteaz gain. Iraileko 4 azterketetan huts egin nuen. Bi gaituz gero ez nukeen errepikatu beharrik izango; nahikoa izan behar zuen latin pixka bat estudiatzeak, matematiketan edo ingelesan zerbait ikasteak. Baina ez nuen egin. Beste

gauza batzuk ikasi nituen gaueko ipuinarekiko nire eguneroko hitzorduan; bakarrik ekosistema basati batean egon daitekeen komunitate hain aberats eta ezberdineko jakituriaren norbere zatia erakusten zidan pertsonaia bakoitzak. Orduan Cicely, Alaska, bilatzen ikasi nuen. Era nekazekin batean. Cicely eta bertan gertatzen zen guztia, festetan ikusten genituen sagar horiek bezalako karamelu dentsoz estalita agertzen zen, jakina! Uste dut ez dela esan behar 'zorioneko' bizitza izateak ez duela eragozten ikustea natura basatiko bizitza ez dela bakarrik mairuak eguzki azpian jatea. Hala ere, nahiz eta arazoak ez ziren agertu telesailan, zera erakusten zidan: guztiok desio dugu zerbait, eta sufritu egiten dugu.

Gauzak desiratzeko eta sufritzeko modua gure neurrira eginda dago, baina aldi berean, desiozko eta sufrimenduzko sareak batzen gaitu. Nahikoa da 2 hari puntu batean bat etortzea, sare bat txirikordatu ahal izateko.

Zigoitia Zaintzen

Dena erraza da Luis eta Aurkenekin.

- Zer deritzozu zerbait elkarrekin egiteari, Luis?
- Ideia bikaina, Javi. Zer diozu, Aurkene?
- Aurrera!
- Nola gustatuko litzaizuke izatea, Luis?
- Jendeak osasun arloan dituen kezka esateko aukera izatea nahiko nuke. Eta horri buruz informaziorik onena helaraztea.
- Ados, Luis. Deituko ditugu. Zenbat aulki jarriko ditut?
- Gai delikatu bat da, Javi. Lehenengo topaketan 20 pertsona etortzea arrakasta handia izango litzateke. Uste dut 10ekin hasi ahalko ginatkeela.
- 10 kopuru zoragarria da, Luis. Ondo deritzozu ZAZI (Zaintzen Zigoitia) deitzeari?
- Primeran, Javi.

Adostutako egunean 50 pertsona baino gehiago etorri ziren. Pixkanaka pixkanaka iritsi ziren. Luisek azaldu zuen zein garrantzitsua den bakoitzaren eta taldearen zaintza. Gezurrezko interesetatik babesten gaituen keinu soberano

bat. Elkartzeko eskatzen diegu, euren kezka partekatzeko eta hori, larridura sortzen diona garrantzi txikiago gauza iruditzen aukeraren beldurrik gabe. Saioaren amaieran, loa kentzen diguten gauza guztiak arbel batean biltzen ditugu. Mugimendu adeitsu batek betetzen ditu liburutegiko bazter guztiak. Jendeak hitz egiten du, haien artean errespetu eta pazientziarekin. Noizean behin, Luisek begiratzen nau. Bi plater sakon bezala ditu begi niniak, argiz beteta.

- Harrituta nago, Javi.

- Horrelakoa da Zigoitia, Luis.

Emaitza, jardunaldiaren amaieran arbelak erakusten duena, beldur eta mehatxuz egindako konstalazioaren antzeko zerbait da. Horrela esanda ez dirudi batere ona. Hala ere, hor, guztien aurrean, haritu dugun mamuak botere gutxiago dela ematen du. Hor, mamua ikustera elkartu garen tokian, sufrimendu eta kezka zuloek oihala bat txirikordatzen dute, guztiona den oihala. Gure mamua begirunez begiratzen dugu. Gurea da. Gure mesederako biratzen jakingo dugu. Horrelakoa da Zigoitia. Horrelakoa da bizitza. Zorionez.



"Arbel batean jaso genituen euren kezka. Aurrez begiratzen baduzu, mamuak botere gutxiago dauka".

Gaueko geldialdiak Gasteiz-Zigoitia 1. linean

Pasa den martxoaren 1etik, bi geldialdi berri daude Gasteiz-Zigoitia 1. linean:

- Etxebarri-Ibiñan, A-3064 errepidean, Barauten
- Gopegin, A-3608an, Amaiurren eta A-4409aren arteko bidegurutzean

Gauetz bakarrik funtzionatuko dute: 18.30etik aurrera azaroaren 1etik martxoaren 31ra, eta 21:00etatik aurrera apirilaren 1etik urriaren 31ra. Zerbitzua erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da, autobusera igotzerakoan, gidariari jakinaraztea

eta zein geldialditan jaitsi nahi dugun adieraztea.

Doako zerbitzua

Beste berritasun bat dago garraio publikoan. Kasu honetan bidaiarien adinarekin lotuta. 6 urtetik beherako umeek ez dute txartela ordaindu beharko (orain arte, 5 urtetik beherakoek).

Azkenik, ezgaitasun fisiko edo psikikoa duten eta bakarrik bidaiatu ezin duten pertsonen laguntzaileek ere ez dute txartela ordaindu beharko.

LÍNEA 1 ZIGOITIA – VITORIA- GASTEIZ

ZESTIFE	ACOSTA/KOKOITZA	GOROSTIZA (Zigoitia)	ETXAQUEN (Zigoitia)	MURUA	LARRINDA	MANURGA	GOPEGI	ERBE	BURIAGA	BERRIKANO	APODANA	ETXABARRI IBIÑA	ETXABARRI IBIÑA (MG Gorbela CC)	VITORIA/GASTEIZ (Gorbela Estazio)
ASTELEHENETIK OSTIRALERA / LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES / LABORABLES >>>>>>														
*	*	06:50	06:53	06:55	*	06:58	07:01	*	07:04	07:08	07:15	07:17	07:26	
*	*	08:20	08:23	08:25	*	08:28	08:31	*	08:34	08:38	08:45	08:47	08:56	
*	*	09:50	09:53	09:55	*	09:58	10:01	*	10:04	10:08	10:15	10:17	10:26	
*	*	14:45	14:48	14:50	*	14:53	14:56	*	14:59	15:03	15:10	15:12	15:21	
*	*	16:15	16:18	16:20	*	16:23	16:26	*	16:29	16:33	16:40	16:42	16:51	
*	*	18:40	18:43	18:45	*	18:48	18:51	*	18:54	18:58	19:05	19:07	19:16	
*	*	20:50	20:53	20:55	*	20:58	21:01	*	21:04	21:08	21:15	21:17	21:26	
							22:10					22:19	22:21	22:30
LARRUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>														
*	*	9:55	9:58	10:00	*	10:03	10:06	*	10:09	10:13	10:20	10:22	10:31	
*	*	12:45	12:48	12:50	*	12:53	12:56	*	12:59	13:03	13:10	13:12	13:21	
*	*	15:55	15:58	16:00	*	16:03	16:06	*	16:09	16:13	16:20	16:22	16:31	
*	*	22:00	22:03	22:05	*	22:08	22:11	*	22:14	22:18	22:25	22:27	22:36	

1 VITORIA- GASTEIZ – ZIGOITIA

(*Acercamiento: el autobús solo parará si las personas usuarias avisan con antelación)

VITORIA/GASTEIZ (Gorbela-Estazio)	ETXABARRI IBIÑA (MG Gorbela CC)	ETXABARRI IBIÑA	APODANA	BERRIKANO	BURIAGA	ERBE	GOPEGI	MANURGA	LARRINDA	MURUA	ETXAQUEN (Zigoitia)	GOROSTIZA (Zigoitia)	ACOSTA/KOKOITZA	ZESTIFE
ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LINES A VIERNES LABORABLES >>>>>>														
07:35	07:44	07:46	*	*	*	*	08:03	*	08:06	08:08	08:11	*	*	*
09:05	09:14	09:16	*	*	*	*	09:33	*	09:36	09:38	09:41	*	*	*
14:00	14:09	14:11	*	*	*	*	14:28	*	14:31	14:33	14:36	*	*	*
15:30	15:39	15:41	*	*	*	*	15:58	*	16:01	16:03	16:06	*	*	*
18:00	18:09	18:11	*	*	*	*	18:28	*	18:31	18:33	18:36	*	*	*
20:10	20:19	20:21	*	*	*	*	20:38	*	20:41	20:43	20:46	*	*	*
21:30	21:39	21:41	*	*	*	*	21:58	*	*	*	*	*	*	*
LARRUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SÁBADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>>														
09:10	09:19	09:21	*	*	*	*	09:38	*	09:41	09:43	09:46	*	*	*
12:00	12:09	12:11	*	*	*	*	12:28	*	12:31	12:33	12:36	*	*	*
15:10	15:19	15:21	*	*	*	*	15:38	*	15:41	15:43	15:46	*	*	*
21:15	21:24	21:26	*	*	*	*	21:43	*	21:46	21:48	21:51	*	*	*